

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila****Bizkaiko Foru Aldundiaren 11/2021 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, «Udalekuak 2021» udako kanpaina arautzen duena.**

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren helburu bat da udan haur eta gazteentzat jolas-aisialdia indartzen duten programak, proiektuak eta jarduerak antola eta gara daitezen sustatzea eta, aldi berean, entretenimendua, bizikidetzeta eta kooperazioa bultzatzea.

Horretarako, urtero, aisia eta astialdiaren arloan umeentzako hainbat jarduera, antolatzen ditu, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiekin koordinaturik, umeak naturan beste ume batzuekin jolastea sustatzeko eta neska-mutil bizkaitarrei oporraldietan ondo pasatzeko aukera emateko.

Ekimen horri eustea beharrezkoa dela iritzita, foru-dekretu honen bidez, «Udalekuak 2021» udako kanpaina arautu behar da.

Ekitaldi honetan, halaber, kontuan hartu da COVID-19ren bilakaerak eragindako osasun-krisia, eta, horren ondorioz, horrelako jarduerak indartu eta babestu behar dira, pandemiak eragindako ondorio negatiboak arintzeko.

Proposatutako xedapen orokorrak hizpide duen arloan eskumena Bizkaiko Foru Aldundiak du, 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkide eta bere Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzkoak, xedatutakoarekin bat. Izan ere, 7.c.2, artikuluari jarraiki, azkenekoek beren lurraldeetan erakunde erkideen legedia gauzatuko dute honako arloetan: erkidegoa garatzea, emakumeak, haur, gazte eta adinekoen politika, aisialdi eta astialdia. Dena den, hori guztia egingo dute, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek arlo horietan garatutako zuzeneko ekintza gorabehera.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren arabera, sail honi dagokio «Udalekuak» programa kudeatzeko eskumena, bai eta umeei zein nerabeei kolonia eta kanpamentuetako jarduerari dagokienez arreta emateko eskumena ere.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru-dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru-dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiari buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko martxoaren 2ko bileran aztertutik, honako hau



XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra. — «Udalekuak 2021» udako kanpainaren oinarriak onartzea**

«Udalekuak 2021» udako kanpaina garatzeko oinarri arautzaileak onartzen dira. Ondoren jasotzen da oinarri horien testua.

AZKEN XEDAPENAK

**Azken Xedapenetako Lehenengoa. — Erregelamenduz garatzeko gaikuntza**

Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio «Udalekuak 2021» udako kanpaina garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea**

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 2021eko martxoaren 2an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

**«UDALEKUAK 2021» UDAKO KANPAINAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**

## I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria. — «Udalekuak 2021» udako kanpainaren xedea**

1. «Udalekuak 2021» udako kanpainaren xedea da adingabeentzako 822 plaza eskaintzea, hiru foru-aldundiek eskaintako instalazioetan.
2. Honako hauek dira «Udalekuak 2021» udako kanpainaren helburuak:
  - a) Bizkaiko umeei oporraldietarako aukera bat eskaintzea.
  - b) Autonomia eta elkarbizitza ahalbidetzea.
  - c) Ikasteko aisialdia sustatzea.
  - d) Ingurune naturalera hurbiltzeko aukera eta ingurumenaren zaintza sustatzea.
  - e) Euskararen erabilera sustatzea, aisialdiko jardueretan komunikazio-hizkuntza izan dadin.
  - f) Eskualde bakoitzeko ohiturak eta kultura-baliabideak ezagutzera ematea.
  - g) Beste jokabide batzuen artean, eguneroko bizikidetzan lagunartekotasuna eta elkartasuna indartzea.
  - h) Berdintasunean eta begirunean oinarritutako jarduerak sustatzea, genero-este-reotipoak eta -rolak zalantzan jartzeko.

**2. oinarria. — Parte-hartzaileak eta aurkezleak**

1. «Udalekuak 2021» udako kanpainan, 2008. urtetik 2014. urtera (urte bietan barne) jaiotako pertsona guztiak parte hartu ahal izango dute, baina, horretarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta egon beharko dute foru-dekretu hau argitaratzen denean.

Parte-hartzailea interesdun izango da «Udalekuak 2021» prozeduraren barruan.

Prozedura jarduteko gaitasunik ez duten adingabeentzat denez, eskabidea «Udalekuak 2021» kanpainan parte hartzen duen umearen aitak, amak, legezko ordezkariak edo zaintza duen pertsonak aurkeztu behar du.

Eskatzailea aurkezlea eta parte-hartzailearen ordezkaria izango da.

2. «Udalekuak 2021» kanpainan parte hartzeak oinarri guzti-guztiak onartzea dakar.

**3. oinarria. — «Udalekuak 2021» udako kanpainaren antolamendua**

1. Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiekin batera antolatuko da «Udalekuak 2021» udako kanpaina, eta 2021eko uztailaren 1etik 29ra bitartean (egun bi horiek barne) garatuko da, 7 eguneko egonaldietan.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak guztira 822 plaza eskainiko ditu «Udalekuak 2021» kanpainan; haien artean, erreserba hauek egingo dira:
  - a) Plazen % 5 erreserbatuko du gutxienez ere % 33ko desgaitasuna duten pertsonentzat edo ofizialki aitortutako mendetasun-gradua dutenentzat, betiere egoki integratu ahal badira honelako jarduera batean.
  - b) Plazen % 1 erreserbatuko da Bizkaiko Foru Aldundiaren babes berezia duten kolektiboetako kideentzat; plaza horiek zuzenean adjudikatuko dira, arloko esku-mena duen foru-sailak eskatuta.
3. Kanpaina bideratzeko, adingabeak taldetan antolatuko dira, adin-tarte hauen arabera:
  - a) 2013an edo 2014an jaiotakoak.
  - b) 2010, 2011 edo 2012an jaiotakoak.
  - c) 2008an edo 2009an jaiotakoak.



4. «Udalekuak 2021» udako kanpainaren eskaintzan, bi hizkuntza-eredu egongo dira:
  - a) *Euskara*: komunikazioa euskara hutsean izango da; beraz, adingabeek euskaraz jakin eta erabili behar dute.
  - b) *Elebiduna*: euskara eta gaztelania erabiliko dira.

## II. TITULUA

### ARAUBIDE JURIDIKOA

#### 4. oinarria. — *Aplikatu beharreko araudia*

1. «Udalekuak 2021» kanpainan parte hartzeko prezio publikoak «Udalekuak 2021» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki eta haren gaineko arauak garatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretuan ezarritakoak izango dira.

2. Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: 4/1990 Foru Araua, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa, eta bere izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein arau-xedapen.

## III. TITULUA

### PROZEDURA

#### 5. oinarria. — *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3. artikuluan xedatutakoarekin bat, «Udalekuak 2021» kanpainan parte hartzeko eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan baino ez dira egongo eskuragarri, <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera> bertan bete eta izapidetzeko. Eskabidea betetzen denean, «Udalekuak 2021» kanpainan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da, 7. oinarrian ezarritakoarekin bat etorruta.

3. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko martxoaren 18tik martxoaren 29ko 13:30era arte izango da.

#### 6. oinarria. — *Eskabideak betetzea*

1. Ume bakoitza eskabide batean bakarrik inskribatu daiteke. Parte-hartzailearen bat eskabide batean baino gehiagotan agertzen bada, egin den azkena joko da baliozkotzat.

Adinaren eta hizkuntza-ereduaren arabera eta lehentasun-hurrenkera kontuan hartuta, bost txanda eta instalazio eskatu ahal izango dira gehienez.

Gehienez ere hiru eskabide lotu ahal izango dira zozketan elkarrekin batera parte hartzeko.

Desgaitasunik eta/edo mendekotasunik ez duen pertsona batek desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duen batekin batera laguntzaile gisa parte hartu nahi badu, instalazio berak, txanda berak eta adin-tarte bera eskatu beharko ditu.

2. Eskabide bat deuseztatzeak ez dio eragingo hari lotutako eskabideei.

Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duen pertsona batek, eskabide bati lotuta egonda, beste eskabide bat egiten badu edo eskabidean atzera egiten badu, hari lotutako pertsona zozketa orokorrean sartuko da.



3. Desgaitasun psikikoa (adimen-desgaitasuna edo heldutasun-atzerapena) duten parte-hartzaileei urte bateko marjina utziko zaie beren adin errearen eta eskatzen duten instalazioaren eta txandaren adin-tartearen artean, desgaitasuna duen parte-hartzailearen heldutasun-garapena ikusita egokitzat hartzen bada, hau da:

- a) 2009an jaio den pertsona batek izena eman ahal izango du 2010., 2011. eta 2012. urteetan jaiotakoei dagozkien instalazio eta txandetan.
- b) 2012an jaio den pertsona batek izena eman ahal izango du 2013. eta 2014. urteetan jaiotakoei dagozkien instalazio eta txandetan.

Eskabidean ezingo dira nahastu adin-tarte desberdinei dagozkien instalazioak eta txandak, hau da, parte-hartzailearen heldutasun-garapenaren arabera komenigarritzat jotzen bada ez dagokion adin-tarte batean parte hartzea «Udalekuak 2021» udako kanpainan, instalazio eta txanda guztiak adin-tarte horri egokituko zaizkio.

Modalitate honetan parte hartu ahal izateko, txosten bat aurkeztu behar da, non desgaitasun intelektuala edo heldutasun-atzerapena egiaztatu behar den eta aukera horretan parte hartzeko egokitasuna frogatu behar den. Txosten hori parte-hartzailea kide den elkarteak edo adingabea ezagutzen duen profesional eskudunak egingo du (pediatriak, neuropediatriak, psikologoak, psikiatriak edo hezkuntza-arloko profesionalak).

«Udalekuak 2021» kanpainan parte hartu ahal izateko, 11. oinarrian aipatzen den Ebaluazio Batzordeak balidatu egin beharko du txostena.

#### **7. oinarria. — Parte-hartzeko eta hobariak lortzeko baldintzak**

1. «Udalekuak 2021» kanpainan parte hartzeko ezinbesteko baldintzak dira:

- a) Zozketan parte hartzeko:
  - 1) 2008 eta 2014 urteen artean jaiotakoak izatea, biak barne.
  - 2) Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.
  - 3) Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna egiaztatzea, erreserbatutako plaza horietan parte hartu nahi dutenen kasuan.

b) Hobaria lortzeko:

Zozketan plaza lortzen duten parte-hartzaileek hobariak lortu nahi badituzte «Udalekuak 2021» kanpainaren prezio publikoaren kuotan, baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1) Familia-ugarikoak izatea.
- 2) Diru sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen unitate batekoak izatea.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioak dituen parte-hartzailearen datuak direla-eta, datuok beharrezkoak direnean «Udalekuak 2021» udako kanpainaren izapidetze administratiborako. Horretarako, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa eta bestelako elkarreragingarritasun-zerbitzuak erabiliko ditu.

Halaber, mugikortasun-baremoak, desgaitasun mota eta desgaitasunari eta/edo mendekotasunari buruzko beste datu batzuk berrikusiko dira balorazioa egiteko.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Kultur Ekintzako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

2. Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plaza-erentarako eskabideetan, egoitza elektronikoa dagoen umearen informazioari buruzko fitxa erantsi beharko da.

#### **8. oinarria. — Eskabideak zuzentzea edo hobetzea**

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio eskabidea aurkeztu duenari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan egoitza elektronikoa. Era berean,



ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die aurkezleei.

3. Martxoaren 31tik aurrera, erregistratutako eskabideen zerrenda argitaratuta egongo da [www.bizkaia.eus/udalekuak](http://www.bizkaia.eus/udalekuak) web-orrian.

Eskabidea epe barruan aurkeztu arren, zerrenda horretan agertzen ez diren pertsonen 10 egun naturaleko epea izango dute, zerrenda hori argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta, erreklamazio aurkezteko egoitza elektronikoan.

#### **9. oinarria. — Informazioa eta aholkularitza**

1. «Udalekuak 2021» udako kanpainari buruzko informazio guztia web orri honetan argitaratuko da: [www.bizkaia.eus/udalekuak](http://www.bizkaia.eus/udalekuak)

2. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru-dekretu hau dela-eta sortutako zalan-tza edo kontsulta guztiak argitzeko, web-orri honen bidez:

<http://www.bizkaia.eus/laguntza>

#### **10. oinarria. — Zozketa eta plazen behin-behineko adjudikazioa**

1. Plazak behin-behinekoz adjudikatuko dira Kulturako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, zozketa publiko batek ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera. Zozketa hori 2021eko apirilaren 27ko 10:00etan egingo da, notarioaren aurrean, Bilboko Recalde zumarkaleko 30 zenbakiko 1. solairuan dagoen multimedia-aretoan. Ebazpen hori jakinaraziko da, eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuan izango da eskuragarri.

2. Zozketa eta adjudikazioa egin ondoren, lekurik lortzen ez duten eskabideak itxarote-zerrenda batean sartuko dira, zozketan ezarritako hurrenkeraren arabera.

3. Behin-behinean esleitutako plazaren erreserba formalizatzeko, esleipendunek honako hauek egin beharko dituzte jakinarazpenean ezarriko den epean:

a) Formularioa egoitza elektronikoan bete, honako hauek erantsita:

- 1) Partaidearen argazki berria (NAN/pasaportean erabiltzen denaren modukoa).
- 2) Fitxa medikoa, behar bezala bete, eta txostena, preskripzio mediko edo farmakologikorik badu.
- 3) Osakidetzako osasun-txartelaren fotokopia edo parte-hartzaile adingabearen beste edozein gaixotasun-aseguru pribaturena.

Ezinbestekoa izango da baimen espresua ematea parte-hartzaile adingabeen datu medikoak lagatzeko adingabeak jasoko dituen instalazioari zein instalazio horren ardura duen foru-aldundiari.

Kanpainatik kanpo geratzeko arrazoia izango da baimen hori ez ematea, ezin baita ziurtatu instalazio horietan parte hartzen duen adingabeari behar bezalako arreta emango zaiola.

b) Dagokion partaidetza-kuota ordaintzea.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak «Udalekuak 2021» udako kanpainan parte hartzeko kuota ordaindu dela egiaztatuko du.

Ordainketa hori egiten ez bada, bere borondatez eskaerari atzera egiten diola ulertuko da.

4. Plazaren adjudikazioa ez da behin betikoa izango, harik eta 3. atalean eskatzen den dokumentazioa egiaztatu eta kuota ordaindu arte.

5. Plazaren erreserba formalizatu ondoren, bidaia-txartela eskuratu ahal izango da.



Parte-hartzaile adingabeak instalazioetatik itzultzen direnean modu egokian jasotzen direla ziurtatzeko, eskabidea aurkeztu duen pertsonak txartel hori aurkeztu beharko diote autobuseko arduradunari.

Pertsona horrek ezin badu joan umearen bila kanpamentutik itzultzen denean, beste pertsona bati eman diezaioke baimena umea jasotzeko; horretarako, bidaiatxartelean dagokion atala bete behar du.

### **11. oinarria. — Ebaluazio Batzordea**

1. Berariaz sortutako Ebaluazio Batzordearen proposamenez egingo da desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonak gizarteratzeko txandako plazen adjudikazioa.

2. Ebaluazio Batzordeko kideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez izendatuko dira. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da. Hauek izango dira batzorde horretako kideak:

- a) Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.
- b) Gizarte eta Hezkuntza Programen Ataleko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.
- c) Kultura Zuzendaritza Nagusiko teknikari bat, hitz egin eta botoa emateko eskubidea izango duena; batzordeko idazkaria izango da.
- d) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak izendatutako bi pertsona.
- e) Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonen arloan urte osoan lan egiten duten erakundeetako 6 ordezkari gehienez ere. Erakunde bakoitzak jakinaraziko dio Kultura Zuzendaritza Nagusiari nor den bere ordezkaria ebaluazio batzordean.
- f) Beharrezkotzat jotzen diren aditu guztiak, batzordeari hartu behar dituen erabakietan aholkua eman diezaioten. Adituek hitz egiteko eskubidea izango dute batzordearen bileretan, baina ez botoa emateko eskubiderik.

Batzordeko kideek ezin izango dute prozeduran parte hartu eta errefusatu ahal izango dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako kasuetan.

### **12. oinarria. — Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonentzako hautaketa-prozesua**

1. Hautaketa-prozesuak fase hauek izango ditu:

a) *Zozketa:*

Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonak aurkeztutako eskabideak notario aurreko zozketan sartuko dira, txanda orokorrekoekin batera. Hala, lehentasun-hurrenkera ezarriko da.

b) *Aukeraketa-fasea:*

Zozketa publikoaren hurrenkerari zorrotz jarraiturik, eta kasuak aztertu ondoren, Ebaluazio Batzordeak eskabideak ebaluatuko ditu, alderdi hauek kontuan hartuta:

- 1) Lehen aukeraketan hautatutako pertsonaren egokitasuna, kontuan hartuta zer desgaitasun-gradu eta mendekotasun-gradu daukan ofizialki onartuta.
- 2) «Udalekuak 2021» udako kanpainan integrazteko aukera, eta lehen aukeraketan hautatutako pertsonaren profila egokia den instalazio eta jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta.
- 3) Langile espezifikorik edo laguntzailerik behar den hautatutako pertsonaren parte-hartzea errazteko.

Ebaluazio Batzordeak desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonentzat gordetako plazak emateko edo ukatzeko proposamena egingo dio Kultura-





ko zuzendari nagusiari. Proposamen horretan, langile espezifikorik behar den zehaztuko du.

Langile espezifikoak eta/edo laguntzaileak desgaitasuna eta/edo mendekotasuna dutenentzako plazak eskuratzen dituzten pertsonentzat baino ez dira izango. Hori dela eta, desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonen langile espezifikoak edo laguntzaileak behar badituzte, desgaitasuna eta/edo mendekotasuna dutenentzako plazetarako aurkeztu beharko dira haien eskabideak.

2. Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonentzat gordetako plazetatik hutsik geratzen direnak txanda orokorrera pasatuko dira.

### **13. oinarria. — Plazen behin betiko adjudikazioa**

1. Plazen behin betiko adjudikazioa Kulturako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez egingo da. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta jakinaraziko da, eta egoitza elektronikoaren bidez komunikatuko da.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuari; horretarako, hilabeteko (1) epea egongo da, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

2. Bete gabe gelditzen diren plazak itxarote-zerrendaren hurrenkerari zorrotz jarraituta beteko dira. Egoitza elektronikoaren bidez emango da horren berri, eta, plaza guztiak bete ahal izateko, dokumentazio guztia txandak behar bezala antolatzeke aukera ematen duen epe baten barruan izapidetzeko eskatuko zaie adjudikaziodunei.

### **14. oinarria. — Kuota**

1. Kuota ordaintzeko, partaide bakoitzari dagokion diru-kopurua sartu beharko da horretarako gaitutako ordainketa-pasabidearen bidez.

2. Dekretu hau argitaratzen den egunean diru-sarrerak bermatzeko errenta jasozten duen unitate batekoak diren eta eskabidean datu hori zehaztu duten partaideek hobari bat izango dute kuota orokorrean.

Dekretu hau argitaratzen den egunean familia ugarizat jotako familia-unitate batekoak diren eta eskabidean datu hori zehaztu duten partaideek hobari bat izango dute kuota orokorrean.

Hobari horiek «Udalekuak 2021» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki eta haren gaineko arauak garatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretuan ezarriko dira. Eskatzaile batek ezin izango ditu hobari biak metatu.

### **15. oinarria. — Kuotak itzultzea**

1. Aurreko oinarrian ezarritako kuotak behin ordainduz gero, haien zenbatekoa hurrengo inguruabarretariko bat gertatzen denean bakarrik itzuliko da; horretarako, aurretik eskabidea egin behar da egoitza elektronikoaren bidez, eta frogagiriak aurkeztu. Hauek dira inguruabarrak:

- a) Gaixotasuna edo istripua; medikuaren frogagiriak aurkeztu beharko dira.
- b) Txandetara joatea ezinezko egiten duten ustekabeak edo behar larriak; horretarako, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren iritziz justifikazio nahikoa egon behar du.

Behin betiko plaza adjudikatuta daukaten parte-hartzaileen kasuan, nota txarrak ateratzea ez da justifikazio nahikoa izango kuota itzultzeko.

2. Txanda hasi bada, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan baino ez da itzuliko kuota. Kasu horietan, eman ez diren egunetako zati proportzionala itzuliko da.

3. Kuotak itzultzeko eskabideak egiteko, gehienez ere berrogeita bost (45) egun naturaleko epea egongo da parte-hartzaileari adjudikatutako txandaren azken egunetik hasita, eta Kulturako zuzendari nagusiak ebatziko ditu, eskabideak aurkezten direnetik hilabeteko (1) epea igaro aurretik. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada,





eskabideak ezetsizat joko dira; hala ere, gero ebazpen espresua eman eta jakinarazi ahal izango da.

**16. oinarria. — «Udalekuak 2021» udako kanpainako parte-hartzaileek bete behar dituzten arauak**

1. Udalekuak bizikidetzarako eta balioak ikasteko lekuak dira, eta, beraz, parte-hartzaileek bizikidetzara eta lankidetzako arau batzuk bete behar dituzte. Hori dela eta, parte-hartzaile batek arauak behin eta berriro hausten baditu, instalaziotik kanporatu ahal izango da. Etxerako bidaia eskatzailearen edo adingabearen arduradunaren kontura izango da.

2. Instalazioaren arau orokorrez gainera –instalaziora heltzean emango da haien berri-, honako hauek ere bete behar dituzte parte-hartzaileek:

- a) Jarduera guztietan parte hartu behar dute.
- b) Udalekuaren dinamika ez apurtzeko, ez da bisitarik baimenduko.
- c) Sakelako telefonoen, musika-erreproduzitzaileen (mp3, mp4, ...), argazki-kameren edo beste edozein aparatu elektronikoren erabilera mutuko da, jardueraren garapena oztopa ez dezaten.
- d) Ezin da irten aterpetxetik baimenik gabe.
- e) Gainerako parte-hartzaileak errespetatu behar dira; ez da onartuko arraza, erlijio, sexu-joera edo itxura fisikoa eta edozein izaera edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta inor eraso edo ofenditu dezakeen adierazpenik edo jokabiderik.

3. Udalekuetara ezarritako data baino geroago joateko, Aldundiaren baimena beharko da.

4. Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileei objektu pertsonalen bat galdu, apurtu edo hondatuz gero.

**17. oinarria. — Datuen babesa**

1. Kanpaina hau dela-eta ematen diren informazioak eta datuek arau hauen babesa dute: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua derogatzen duena.

2. Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ezarritakoa betetzeko, datuak helburu bakarrarekin tratatuko dira: espediente hau eta beronekin zerikusia duen beste edozein espediente kudeatzea. Tratamenduaren arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Zuzendaritza Nagusia izango da.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo haien tratamenduari mugak jartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko, nortasuna egiaztatu beharko da, eta idazki bat aurkeztu Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra - Laguntza bulegoan (Liburategiko kristalezko): Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Atala – Diputazio kalea, 7, Bilbo 48009. Bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabilia aurkeztu ahal izango da. Idazkia Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari helarazi behar zaio.

Halaber, eskubidea dago kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioa jartzeko, alegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean.

Era berean, aukera dago datuak babesteko Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idazki bat bidalita Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko buruari (Diputazio kalea, 7, 48009 Bilbo).